

II. MUGAGABEA (4)

II.1. NONGO MUGAGABEAN

- Aurreko ikaskaietan ikusi dugun bezala, mugagabea zenbait galderatan (*zenbat etxe* , baina *nolako etxeak*), indefinidoekin (*edozein etxe*), zenbatzaileekin batzuetan (*bi etxe* , baina *bi etxeak*) eta esaera zenbaitetan (*bitan, eguzkitan...*) erabiltzen da.

Hona **nongo** kasuko adibide batzuk:

Zenbat egunetako lana zor dizut?	(el trabajo de cuántos días)
Bi egunetako lana zor didazu	(el trabajo de dos días)
Egunetako lana da hori	(el trabajo de días)

Eta izena isilpean utzita:

Zenbat egunetakoa zor dizut?	(el de cuántos días)
Bi egunetakoa zor dizut	(el de dos días)
Egunetakoa zor dizut	(el de días)

- Forma:

NONGO

bokal	-(TA)KO	bost ordutako lana bost ordutakoa
kontsonante	-e(TA)KO	bost egunetako lana bost egunetakoa

- Erabilera:

Neurria, adina, pisua eta horrelakoak adierazten direnean, **-ta-** gabe erabiltzen da maiz mugagabea:

Bi metroko soka	-	Bi metrokoa
Hamazazpi urteko gaztea	-	Hamazazpi urtekoa
Bi pisuko etxea	-	Bi pisukoa
Berrehun kiloko harria	-	Berrehun kilokoa
Mila laguneko herria	-	Mila lagunekoa
Hitz gutxiko andrea	-	Hitz gutxikoa

ARIKETAK

1. Bete itzazu hutsuneak parentesi barruko hitza **nongo mugagabeen** erabiliz:

1. Edozein ... jendea hartzen dute lantegi horretan (adin)
2. Leku ... dena ez da inongoa (gehiegi)
3. Zenbait ... giroa ez da atseginegia izaten (etxe)
4. Zein ... zara? (herri)
5. Zer ... tren hartu behar dugu? (ordu)
6. Egun ... lanaren soldata zor didate (asko)
7. Hiru ... administrazioa daukat neure kargu (denda)
8. Bi ... zuzendari izana da (irradi)
9. ... kontuak dira horiek! (toki)
10. Neurri ... arropak dituzte denda horretan (asko)
11. Hiru ... urak biltzen dira presa horretan (erreka)
12. Zenbait ... harea zakarregia da (hondartza)
13. Edozein ... atarian ikusiko dituzu eskaleak (eliza)
14. Edozein ... arropa jazten du horrek (kolore)
15. Hainbat ... jendea etorri da ! (leku)

Ondoko esaldietan mugagabeak ez du **-ta-** behar (**bi metroko, hamar urteko...**):

16. Hogei ... neska batekin dabil Koldo (urte)
17. Lau ... etxeak egingo omen dituzte hemen (pisu)
18. Ehun metro ... etxea erosi dute (karratu)
19. Oraingo pelikula denak dira bi ... (ordu)
20. Bost ... autoa behar dut (lagun)

2. Euskaratu:

1. Necesitamos una casa de cuatro habitaciones.
2. Necesitan jóvenes de unos veinticinco años.
3. Aquí hay gente de muchos pueblos.
4. Vistes ropa de cualquier tamaño y color
5. ¿De qué pueblo es tu amigo?
6. Llevo las cuentas de tres tiendas.
7. Estoy leyendo un libro de mil páginas.
8. No es bueno beber agua de cualquier fuente.
9. ¿De qué casa son estas llaves?
10. Prefiere ropa de colores claros.



III. ERLATIBOA IRAGANEAN

- Aurrako kurtsoetan ikasi duzu zein den euskal erlatiboaren egitura:

..... aditz jokatua -eN (+ izena

edo:

..... aditz jokatua -eN (+ A

Adibidez:
 Zure alabari eskaini dioten **lana** polita da (el trabajo que...)
 Niri eskaini didatena itsusia da (el que...)

Erlatibo horiek deklinatu egiten dira, noski:

eskaini didaten **lanak** soldata ona du
 eskaini didaten **lanari** ez diot itxura onik hartzen
 eskaini didaten **lanaren** inbidiatan zaude
 eskaini didaten**ak** soldata ona du
 eskaini didaten**ari** ez diot itxura onik hartzen
 eskaini didaten**aren** inbidiatan zaude

- Iraganak ere egitura bera du, baina iraganak amaieran **-en** morfema berez daramanez, erlatiboa egiteko ez da ezer gehitzen:

etorri zen (vino)
 etorri zen **neska**... (la niña que vino)
 etorri zena... (el/la que vino)

Intonazioak eta kontestuak esaten dute esaldia erlatibokoa den ala ez:

etorri zen neska (vino la niña)
 etorri zen **neska** nire laguna da (la niña que vino es amiga mía)

Iraganeko erlatiboak ere deklinabide atzizkiak har ditzake:

Nekien **guztia** esan dizuet
 Nekien**a** esan dizuet
 Lehena zetorren **korrikalariak** nekatua zirudien
 Lehena zetorren**ak** nekatua zirudien
 Gola sartu zuen **mutilari** sari berezia eman diote
 Gola sartu zuen**ari** sari berezia eman diote

ARIKETAK

1. Erlatiboa bihurtu lehen esaldia, eta bigarrenean txertatu:

Adbidez:

a. Lore sorta bat erregalatu zenidan b. Lore sorta guztiz polita zen

⇒ Erregalatu zenidan lore sorta guztiz polita zen

1. a. Hagina usteldua neukan
b. Hagina kendu didate
2. a. Alemaniatik ekarri zenidaten botika
b. Botikak zuzpertz nau
3. a. Autoak harrapatu ninduen
b. Autoaren gidaria mozkor-mozkor eginda zihoan
4. a. Kontu batzuk esan zenizkion Amaiari
b. Kontu horiek min handia egin zioten
5. a. Zorrak neuzkan
b. Zor guztiak ordaindu ditut
6. a. Mutil batek deitu zizun etxera
b. Mutila zure nobioa al da?
7. a. Trenak jendea zeraman
b. Jendea Lourdesa zihoan
8. a. Liburuak utzi nizkizun
b. Noiz itzuli behar dizkidazu?
9. a. Kamioiak goitik behera busti gintuen
b. Kamioiak abiada handiegia zeraman
10. a. Eskalea hurbildu zitzaidan
b. Eskaleak arropa zaharrak zeramatzan soinean
11. a. (Haiek) partidua irabazi zuten
b. (Haiek) txanpainarekin ospatu zuten garaipena
12. a. (Haiek) mendian galduta zeuden
b. (Haiek) poliziak aurkitu zituen atzo
13. a. Argazkiak erakutsi nizkizuen atzo
b. Argazkiak neuk egindakoak dira
14. a. Jostailua bere egunean erregalatu zioten
b. Jostailua izugarri gustatu zitzaion Mikeli
15. a. Telebistak irudiak eman zituen
b. Irudiak gogorak izan ziren
16. a. Atzo zorrak pagatu zenizkidan
b. Zorrak orain bost urtekoak ziren
17. a. Aitak liburuak zekartzan
b. Liburuak zuretzat ziren
18. a. Korrikalari gaztea aurrena zihoan
b. Korrikalari gaztea nire herrikoa zen
19. a. Agurea diru eske ibiltzen zen
b. Agureari loteria tokatu zaio
20. a. Amonak etxean sartzen ikusi zintuzten
b. Amonak ez zuen ezer esan.

2. Aukera ezazu parentesi barruko formen artean egokiena (Elige la opción más adecuada):

1. Atzo galdu ... kartera ez da inon agertu (ziren; zenituen; zitzaidan; ninduen)
2. Zergatik ez zenidan ekarri eskatu ... diskoa? (zitzaion; nizun; ginen; gintuen)
3. Ni orraztu ... neskak badaki jendea orrazten (ninduen; zitzaigun; nuen; nizkion)
4. Niretzat ekarri ... pastelak horrek jan ditu (ninduzun; nuen; zen; zenituzten)
5. Oihuka hasi ... neskak gazte-gazteak ziren (zuen; ziren; zitzaigun; zintugun)
6. Esan ... guztia egia hutsa zen (genizuen; ziren; gintuen; genituen)
7. Neskak ekarri ... notak bikainak ziren (zuen; zen; zituen; ninduzun)
8. Harrapatu ... autoa frenorik gabe zihoan (ziren; zintuen; zitzaigun; ginen)
9. Ondoan jarri ... neska guztiz atsegina zen (gintuen; ziren; zuen; zitzaigun)
10. Jaialdira joan ... gehienak pozik irten ginen (ginen; zen; zituen; zintuzten)
11. Hori esan ... gezurra esan zuen (zuen; zuenak; zuena; zuenari)
12. Garaiz itzuli ... ez zituen euriak harrapatu (ziren; zituenei; gintuztenek; zirenak)
13. Arropa kendu zioten igerian ... (zebilenari; zihoana; zegoen; ninduen)
14. Ez nator bat zure lagunak esan ... (zuenari; zuenarekin; zituen; zen)
15. Aurrena iritsi ... urrezko domina eman zioten (zen; zenari; zirenei; zirenekin)
16. Besapean ... nirea zen (zeneramana; zeramatzana; zermanari; zeramatzanak)
17. Etxean sartzen ikusi ... poliziarri deitu zion (ziguna; zenak; gintuenak; gintuen)
18. Ez zien kasurik egiten haserre hurbiltzen ... (zirenekin; zitzaizkionei; zuena; zitzaizkionari)
19. Eskerrak eman nizkien lagundu ... (zidaten; zutena; zidatenak; zidatenei)
20. Txikitan ikasi ... ez zaigu inoiz ahaztu (genuena; genituenak; genuen; nuena)


3. Sustantibatu ondoko esaldietako erlatiboak.

Adibidez: Izugarri gustatu zitzaidan ekarri zenidaten oparia
Izugarri gustatu zitzaidan ekarri zenidatena

1. Ez al dizkiezu eskerrak eman behar lagundu zizuten lagunei?
2. Legarra jauna alkate aukeratu zuten pertsonak ezkerrekoak ziren.
3. Kalera bota zintuzten gizona tabernaren jabea zen.
4. Ondoan jarri zitzaigun gizonak itxura arraroa zeukan.
5. Orduz kanpo iritsi ziren ikasleak zigortu egin zituzten.
6. Diru gehien zeukan lagunarekin ibiltzen ginen beti.
7. Gaixorik zegoen semearentzat izaten ziren janaririk goxoenak.
8. Azkena zihoan txirrindulariari faroltxo gorria ipintzen zioten.
9. Urtebete zeramaten soldaduak etxera bidali zituzten.
10. Ikastetxe hartan ibili ginen ikasleok aurrera atera gara.
11. Errealaren laukian X ipini zenuten guztiak zuzen zeundeten.
12. Sartzeko esan zigun andreak ez gintuen ezagutzen.
13. Aspirina asmatu zuen gizonak mesede ederra egin zigun.
14. Besoak zabalik hartu gintuen andreak ez zigun mesede txikia egin.
15. Nahi nuen guztia ematen zidaten beti.

4. Euskaratu:

1. Lo que tú dijiste era cierto.
2. Para el que llegó segundo no hubo premio.
3. Con el dinero que me tocó en la lotería me compré una moto.
4. ¿Cómo se llama el médico que te curó?
5. El chico que salía contigo ahora anda con Marisa.
6. Sucedió lo que tú habías dicho.
7. He oído mil veces el disco que me dejaste.
8. Lo que dijisteis me extrañó mucho.
9. Lo que le dieron sus padres era suficiente.
10. Lo que ví allí no se me olvidará nunca.
11. El que andaba perdido era Mikel.
12. Siempre andabais con el que tenía coche.
13. El que dijo eso dijo una gran verdad.
14. ¿Cuándo me vas a devolver el libro que te dejé el mes pasado?
15. Hacía todo lo que quería.



I. IRAGANEKO NOR-NORK ETA NOR-NORI-NORK.

- Aurreko ikaskaletan iraganeko **nor-nork** eta **nor-nori-nork** formak ikasi ditugu. Errepaso laburra egingo dugu orain, bi aditz-mota horiek ondo berezteko.
- Hasteko, ez ahaztu aurreko kurtsoetan behin eta berriz ikasi duzuna: aditzak bi argumentu dituzenean, **nor-nork** formak erabiltzen direla, alegia, eta hiru argumentu dituzenean, berriz, **nor-nori-nork** formak :

Egunkaria ekarri **dut** (nik - egunkaria)
Egunkaria ekarri **diot** aitari (nik - egunkaria - aitari)

Iraganean ere gauza bera gertatzen da, noski :

Egunkaria ekarri **nuen** (nik - egunkaria)
Egunkaria ekarri **nion** aitari (nik - egunkaria - aitari)

- Kontuz ibili behar da gaztelaniazko **“a”** preposizioarekin eta **me, te, le...** ize-nordainekin. Horrelakoek bi ordain dituzte euskaraz. **Nor** dira horiek bi argumentuko aditzetan eta **nori**, berriz, hiru argumentukoetan :

Kalean ikusi **zintudan** atzo (‘te vi’: nik - **zu**)
Erregalu bat ekarri **nizun** atzo (‘te traje’: nik - **zuri** - erregalua)

Zure aita ezagutu **nuen** atzo (‘conoci a tu padre’: nik - **zure aita**)
Zure aitari eman **nion** giltza (‘le di a tu padre’: nik - **zure aitari** - giltza)

- Aditz batzuek itxuraz bi argumentu baizik ez dute, baina argumentu hauek **nork** eta **nori** dira eta, hortaz, **nor-nori-nork** formak hartzen dituzte :

<i>eutsi</i>	(sujetar[se]):	Sokari eutsi zion
<i>heldu</i>	(agarrar):	Aitari heldu nion
<i>jarraitu</i>	(seguir):	Lagunari jarraitu zioten
<i>itxoin</i>	(esperar):	Bostak arte itxoin genion
<i>ekin</i>	(empezar/acometer):	Lanari ekin genion
<i>begiratu</i>	(mirar):	Zergatik begiratu zenidan horrela?
<i>abisatu</i>	(avisar):	Garaiz abisatu nion
<i>deitu</i>	(llamar):	Nork deitu zizun atzo?
<i>hots egin</i>	(llamar):	Nori hots egin zenion?
<i>lagundu</i>	(ayudar, acompañar):	Etixeraino lagundu zidaten
<i>e. a.</i>		

ARIKETAK

1. Bete hutsuneak, *iraganeko nor-nork* edo *nor-nori-nork* formak ipiniz:

1. Adizu, ezagutu al zenuen atzo hain alai (zu) agurtu ... mutila?
2. Parean pasatzean, agur egin ... eskuaz, baina zuk ez zenidan erantzun.
3. Dirurik ez nuelako bota ... tabernariak kalera.
4. Mutiko batek harria bota ... eta buruan jo ninduen.
5. Etxera ekarri ... atzo gauean, baina zuek ez zenidaten eskerrik eman
6. Gustatu al zaizkizue (nik) Indiatik ekarri ... erregaluak?
7. Txikitan aitak eramaten ... eskolara; orain bakarrik joaten naiz.
8. Karga handia zuenean, aitak eramaten ... (niri) maleta.
9. Gerra garaian bere etxean gorde ... (gu) alkateak.
10. Sotoan gorde ... (guri) aitak bizikleta, baina guk berehala aurkitu genuen.
11. Zertarako eraman ... teatroa? Badakizu teatroa ez dudala gustoko.
12. Zertarako eramaten ... egunkaria ospitalean nengoenean? Ez al zene-
kien ez nuela batere irakurtzeko gogorik ?
13. Irakasleek aurre-aurrean jarri ... , baina nik berehala aldatu nuen lekua.
14. Nota ona jarri ... Fisikan, ondo egin bainuen azterketa.
15. Zu harrapatu ... autoa guztiz hondatua geratu zen.
16. Ateak eskua harrapatu ... , min handia hartu al zenuen?
17. Gehiegi edateak hondatu ... zu.
18. Zuri ere hondatu al ... euriak teilatua?
19. Gaixorik zeundenean, gurasoek zaindu al ... ?
20. Oporretara joan zinenean, auzokoak zaindu al ... txakurra?
21. Lasai geunden, baina lana faltatzen hasi zenean, kalean utzi ... gu ere.
22. Eskolako haurrek utzi ... baloia guretzat hartu genuen.
23. Asko dakizulako aukeratu ... geure alkate.
24. Ona iruditu al zitzaizun (guk zuri) oporretarako aukeratu ... lekua?
25. Geltokian geundela, kamioi zahar bat pasatu eta goitik behera busti ...
26. Barruraino ez zitzaigun pasatu, baina arropa ederki busti ... atzoko euriak.
27. Txikia zinenean, nik jazten ... egunero.
28. Inauterietan (nik) jantzi ... mozorroa ederki zenuen.
29. Neska atsegina zinenez, ondo hartzen ... denek.
30. Adizu, eskolako zozketa egin zenutenean, zenbat zenbaki hartu ... nire
etxean?

2. Egin gauza bera ondoko esaldietan:

1. Txartelik gabe sartu nintzen eta inork ez ... trabarik jarri.
2. Guk abisatu ... Martxelori, etxea erretzen ari zitzaiola eta etortzeko azkar.
3. Ederki engainatu ... gazte haiek hasieran, baina hobeto ezagutu nituenean etxetik bota nituen.
4. Adizu, zuk deitu ... (niri) bart gauean hain berandu?
5. Itotzeko zorian nengoela, gizon batek soka bota ... eta horrek salbatu ...
6. Gaztetan, zuk ez ... batere jaramonik egiten nire aholkuei.
7. Azkenak iritsi ginenez, lehen lerroan jarri ... akomodadoreak.
8. Oriori traba egin ... eta, eliminatu egin zuten San Pedroko ontzia.
9. Berandu sartu ginen eta ez ... inork ikusi, argiak itzalita baitzeuden.
10. Famatua nintzen ni gaztetan; inguruko herri guztietan ezagutzen ...
11. Errieta egin behar zigunean, bere gelara eramaten ... zuzendariak.
12. Behin lo harrapatu ... lanean eta bi eguneko soldata kendu zidaten.
13. Atea irekitzera nindoanean, norbaitek besotik heldu eta eskaileran behera eraman ...
14. Jende artean pasatu nintzenean, bizkarrean ukitu ... norbaitek.
15. Zergatik ez zinen atzo etorri? Hamabiak arte itxoin ... , baina ez zentozela ikusita hamabietan ohera joan nintzen.

